



Leioa
• **Familian** •
aisialdia euskaraz bizi!



Adi!

Tailer hauek euskara hutsean izango dira, eta helburua, familia barruan zein familia artean, euskararen erabilera bultzatzea eta harreman sarea ehuntzea da. Parte hartzaileak ezinbestean euskaraz aritu behar dira tailerretan.

Estos talleres se desarrollarán íntegramente en euskera, ya que tienen como objetivo fomentar el uso del euskera en el ámbito familiar así como crear y fortalecer la relación entre familias que viven en euskera. Por lo tanto, las personas participantes deberán hablar en euskera durante el taller.

Norentzat?

4 urtetik aurrera duten haurrentzat
+ heldu bat LEKU MUGATUA

Izen emateko epea

Izena emateko aukera zabalik egongo da tailer bakoitzaren aurreko astelehenera arte.

Izen ematea eta informazioa:

Parte hartzeko ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea.

Euskara Zerbitzua,
Jose Ramon Aketxe Plaza 11
(Kultur Leioa) 4. Solairua.
euskarazerbitzua@leioa.eus
946072576

Tailer guztiak
17:30ean hasiko dira

Emakumea eta sorkuntza

Artearen munduan murgilduko gara eskulanaren bitartez, eta, emakume sortzaileen lanei protagonismoa emanez, artista bilakatuko gara familian gu geu ere!

• Martxoak 8 Kultur Leioan



Sukaldaritza tailerra

Umeek janaria prestatzen duten bitartean, elikatzeko erak ingurumenean eta osasunean daukan garrantzia ikasiko dugu. Sasoiko produktuak, elikagaien onurak... Euskaraz janaria prestatzeko gogoia piztuko dugu, eta errezeta osasuntsuak eta erakargarriak prestatuz sormena landuko dugu!


• Apirilak 19 Kultur Leioan



Sortu kaleidoskopio bat

Eskulan eder bat sortuko dugu giro dibertigarrian! Kaleidoskopia tresna optiko bat da: barruan ispiluak dituen eta mutur batean koloreak edo formak dituen hodi bat. Forma geometrikoak eta koloreak ispiluetan islatzen dira. Hodia biratu eta haren mutur batetik begiratzen badugu, kolorezko hainbat irudi geometriko ikus daitezke, aldatuz doazenak.

• Urtarrilak 19 Kultur Leioan



Mozorroak sortzen

Inauteriak ospatzeko dena prestatuko dugu! Mozorroak guk geuk eta gure eskuekin sortuko ditugu, eta hainbat materialekin pertsonaiak sortzeko eskulana egingo dugu.

• Otsailak 9 Kultur Leioan



Zirkua familian

Gorputzarekin, eta mugimenduaren bitartez ere, euskaraz arituko gara! Aireko jokoak, esku jokoak, akrobaziak eta orekak landuko dira era askotako materialak erabiliz, zirkuak barne biltzen dituen hainbat praktika ezagutu eta probatuko ditugu familia artean.

• Maiatzak 10 Kultur Leioan



Tailerren iraupena:

70-90
min. artean.